

BALIOZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak autorrealizazioa eta behar sozialak asetzen ditu.

Denok ditugu beste kulturekiko aurreiritziak eta batez ere ezagutzen ez ditugun erlijioekiko. Estereotipoez betetako mundu batean bizi gara eta herrialde bakoitzak bereak ditu. Aurreiritzi guzti hauen aurrean oso posiblea da bakoitza herrialde jakin baten aurka egotea, hango erlijioak inposatzen dituen ideien aurka egoteagatik, bertako kulturaren inguruan ezer jakin ez arren.

Herrialde edo arrazak gorrotatzeari arrazismo deitzen zaio. Arrazismoa betidanik existitu den gauza bat da. jendea betidanik jarri da bata bestearen aurka bestearen sustraiak edo jatorria dela eta. Normaltzat hartzen dugu bakoitzak berea hoberena dela pentsatzea. Hala ere, azken hamarkada honetan gauzak asko hobetu dira. Elkarte eta talde askok izugarritzko lana egin dute berdintasuna ekartzeko gure kaleetara. Baina ez da erraza gauzak bat batean guztiz hobetzea, gauzak pixkanaka egin behar dira eta berdina gertatzen da gai honekin. Poliki datoz hobekuntzak eta oraindik pauso asko ditugu emateko normaltasunera iristeko.

Gure zeluletan daramagun ADNak, fisiko zein izaeraren definitzeaz gain, gure arbasoen inguruko informazioa ere gordetzen du. Generazioz generazio seme alabei familiako ezaugarri bereizgarriak pasatzen zaizkie eta jaioterria informazio horren barruan dago.

Guk laborategi modernoetan, gure bezeroek bidaltzen dizkiguten listu erauzkinetatik ADN-a analizatu eta haien iraganeko familiaren informazioa lortzen dugu. Ondoren emaitzak erakustean harrিতuta geratu ohi dira; inor ez delako uste bezalakoa. Espero ez zenuen herrialdeetako geneak dituzula ikustean herrialde haiekiko begiak zabaldu eta jakinmina pizten zaizu.

Honekin batera, bidaiatzeko aukera eskaintzen dugunez, zure burua egoera ezberdinetan aurkituko duzu, eta zure jokabidea zein den ikustean gehiago ezagutuko zara. Horrez gain, zure eguneroko estresaz eta ansietateaz urruntzen zaitu. Izan ere guk antolatuko dizugu dena eta ez zara ezertaz arduratu behar.

Laburbilduz, arrazismoarekin bukatzeko aurrerapauso handi bat izango litzake eta era berean nor bere burua hobeto ezagutzeko aukera bikaina da. Gainera esperientzia paregabea da beste herrialdeetara bidaiatzea eta bizitza honetan egin beharreko gauza da.



Gure enpresak jendearen pentsamenduan eragin dezake eta hurrengo bideo honetan garbi ikusten da zer lortu nahi dugun: <https://www.youtube.ctuom/watch?v=tyaEQEmt5ls>

Zerbitzu hau eskaintzen duen enpresa bakarra gara. Izan ere, bidai agentziak eta ADN-a analizatzen dituzten enpresak existitzen dira dagoeneko, baina inork ez du zure ADN-a analizatzen eta ondoren emaitzen arabera bidaia bat, hau da, zure arbasoen jaioterrietako herrialdeetara bidaiarik prestatzen.

Horrez gain, gure bezeroak ez dira ezertaz arduratu behar. Guk antolatuko diegu guztia eta antolaketa prozedura guzti horretan lagunduko diegu. Nahi dituzten aldaketa guztiak egingo dizkiegu eta haien bidai perfektua antolatuko diegu. Hau da, bidaia pertsonalizatu eta eksklusibo bat egingo diegu.

Gure bidaiak ez dira besteak bezalakoak. Bezeroak ez ditugu hotel batera bidaltzen eta han haien kabuz ibiltzen utziko. Bidaia osoan zehar beraien ondoan egongo gara eta egun bakoitza antolatuko diegu. Hori gutxi balitz, herrialdeko monumentu eta leku ospetsuak bisitatzeko aparte, lurraldeko kultura eta ohiturak sakon ezagutzeko aukera emango diegu, bertako kulturaren murgiltzen lagunduz eta honela, herritarren artean integratuta sentiaraziz.

Egia da ain bidaia berezi eta pertsonalizatua egitea ez dela merkea eta horregatik, gure bezeroek asko ordaindu beharko dute. Hala ere, horrek gure alde jokatu dezakeela pentsatzen dugu. Izan ere hori ordaintzeko gai den pertsona batek nolabaiteko estatusa dauka. Hau azaltzeko adibide bikaina da *Apple*-en kasua. Enpresa honen produktuak garestiak dira, agian izan behar lukeena baina gehiago, baina ahala ere jendeak haien produktuak erosten jarraitzen dute. Fenomeno hau arrazi batengatik gertatzen da: gizarte honetan gure helburua, beste askoren artean dirua lortzea da, beraz, aberatsa izateak gizartean maila altu batean jartzen zaitu. Jende mota honek, dirua duela erakusteko, gauza garestiak erosten ditu eta teknologia arloan gauza garestienak marka honek eskaintzen dituenez, hango produktuak erosteko joera hartzen dute. Gainontzeko pertsonak, haiek ere dirua duela erakusteko, *apple* markako gauzak erosten dituzte gizartean nolabait gora egin ahal izateko. Horrelako zerbait gertzen da gure enpresarekin ere. Eskaintza garesti samar bat izanda gure zerbitzua kontratatzen duenak estatusa lortuko du.

Hitz gutxitan, gure enpresak berritasuna, pertsonalizazioa, lana erraztea eta estatusa eskaintzen du. Beraz, emandako arrazoi eta azalpenak-azalpen, gure bezeroek proiektu honetan parte hartu nahi izango dutela pentsatzen dugu.

